Euskarazko lehenengo 'diskoa'

EUSKARA. Parisen 1900. urtean grabatu euskararen lekukotasun soinudun zaharrenak argitaratu ditu Inaxio Lopez de Aranak Eusko Ikaskuntzaren lankidetzaz

INAXIO LOPEZ DE ARANA

GRABAZIOAK EKARTZEKO PROIEKTUAREN BURU



KARLOS BIGURI

«Hizkuntza gutxik izango dute horren testigantza soinudun zaharrak»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Inaxio Lopez de Aranak Euskal Herrira ekarritako materialarekin euskal ondarea «sendotu» egin dela uste du, «lekukotasun soinudunen arloan guztien mailan edo aurrerago» jartzeaz gain.

■ Zer garrantzi dauka argitaratutako materialak?

Garrantzi handikoa da euskal ondarea osatzeko aukera ematen digulako, lehendabiziko testigantza soinuduna izaki. Nire ustez, grabaketa hori gabe euskal kulturaren ondarea guztiz osatu gabe zegoen. Grabaketa hori beti egon da Euskal Herritik kanpora, Parisen, nahiz eta bi urte eman zuen Estatu Batuetan kalitatea hobetzeko asmoz, 1967 eta 1968an. Hortaz, euskal kulturaren ondarea pixka bat aberastu egin dugu, zeren, gainera, nik esango nuke hizkuntza gutxik izango dutela horren testigantza zaharrak.

■ Zer informazio dakarte, adibidez, euskarari edo antropologiari dagokienez?

Ekarpen nabarmenik ez dute egiten. Balioa da, gehienbat, zaharrak direla eta 1900. urtean, nolabait, Pariseko Erakusketan euskara ofiziala izan zela Azoulayri esker, eta, berriz, gaur egungo Europan...

EKARPENA

> «Grabaketa hau gabe euskal ondarea guztiz osatu gabe zegoen»

■ Grabaketa zaharragorik izango dela uste duzu?

Ez dut uste, garai hartantsu asmatu zelako gramofonoa. Oso zaila izango da zaharragorik topatzea, nekez har baitzitekeen ezer bitartekorik izan ezean. Pariseko Erakusketak, hain zuzen, gramofonoaren onurak munduari erakusteko aprobetxatu zuen.

■ Ikerketa lan bat abiatu duzu. Zer ondorio ditu?

Azoulayren artxiboan sartzerik izan ez dudanez, daturik ez dut grabaketan aritu zirenen inguruan. Baina, hoberik ezean, hipotesi batzuk bildu ditut. Nire ustez, lau pertsonek jarri zuten ahotsa grabaketetan: grabazio guztien aurretiko aurkezpena frantsesez egiten duena Azoulay bera da; bigarrenik, Zuberoako gizon batek parte hartu zuen San Juanen araberako lehenengo irakurraldian eta *Maitia non zirade* kantan; hirugarrenik, Zuberoako beste bat aritu zen San Junanen araberako bigarrenaren irakurketan nahiz *Prima eijerra* kantan; eta, azkenik, Beterriko (Gipuzkoa) neska bat, gainontzekoetan. Zuberoako biak eta Beterrikoa Pariseko Erakusketara bisitari joan, eta, Azouleyren eskariz, ahotsa jarri zuten. Azouleyk argibideak eskatu zizkien fonografiatutako guztiei, baina zoritxarrez, galdu egin dira.

■ Zenbat hizkuntza grabatu ziren orduan Parisen?

Mundu osoko hirurogeitamarren laginak egon ziren, batzuk galdu egin baitira. Badirudi jendeak ez duela interes handirik. Inoiz Madrilgo Cervantes Institutuarekin harremanetan jarri naiz, argibideak dohainik eskaini eta haiek ezer egin ez... Adibidez, badakigu Berlinen antigoaleko euskal musika tresnak-eta badauzkatela, baina nork ekarriko ote ditu hona?

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Inaxio Lopez de Arana itzultzaile gasteiztarra lanean zebilen Arabako Biltzar Nagusietan 1996ko azaroan, informatika programa batek aspertu samarturik, bertako dokumentazioburuak XX. mendeko lehen zatian Euskal Herrian lanean aritutako aritutako Rudolf Trebitsch etnologo austriarraren artikulu bat erakutsi zionean. 1913ko testu hark gogora zekarren urte hartan bertan Euskal Herrira etorri zela, besapean gramofonoa zuela, bertako doinuen zenbait grabaketa egin nahian. Baina Rudolf Trebitsch etnologoak berak artikuluan zioen, bera ez zela aurrena izan euskarazko grabaketak egiten, Leon Azoulay izeneko doktore lapurtar bat baizik. Azoulayk Pariseko 1900. urteko Erakusketa Unibertsalaren kariaz egin zituela grabaketak zioen Trebitschek idatzi horretan. Lopez de Aranak abian jarri zuen bilatzailea: Euskaltzaindiara jo, eta berririk lortu ez bazuen ere, orduantxe eskuratu zuen bila jarraitzeko pizgarririk onena, «kontua guztiz ezezaguna» zela jakitean. «Deskubrimenduen garaia pasatuta zegok!», entzun behar izan zuen, tarteka.

MATERIALA

> Bibliako atal batzuk, lau euskal abesti eta bi irrintzi jasotzen ditu hamabost minutuko grabazioak

Parisera bisita

Azoulayren artikulu batzuk topatu, bai, baina Parisen behar zuen norbait... eta Iparraldean lortu zuen beharrezko kontaktua: Beñat Oihartzabal euskaltzaina. Euskaltzainak, internet lagun, Inaxio Lopez de Aranaren grina bideratu zuen. Denis Laborde musikari baionarraren bidez jakin zuten Azoulayren grabazioak Pariseko Musée de l'Homme zeudela. Telefonoz ezer gutxi lotu ahal izan zuen arabarrak, eta, beraz, espedizioa antolatu zuten, 1999ko urriaren 8an egindakoa. Museoan Tran Quang Hai doktore asiarrak hartu zuen, eta, hasieran kolaboratzeari muzin egin bazion ere, Parisekoak ez zekien Lopez de Arana ez zela etsitzeko prest. Inaxiok fitxak nahiz zorioneko grabaketak kopiatzea lortu zuen azkenik, baina orduan hasi zitzaion benetako abenturaren ordua: erakunde batetik bestera, erromes baten gisara, finantzaketa apurra jasotzeko asmoz. Politikariak Museokoa baino zailagoak izan ziren, baina azkenean dokumentoak argitaratu ditu Eusko Ikaskuntzaren lankidetzaz. Grabazioak, 15 minutukoak, Bibliaren testuak (Berpizkundea eta Seme Prodigoarenak), kantuak (Pello Joxepe, Prima eijerra, Maitia non zirade eta Donostiako hiru damatxo) eta Parisen «gudaoihutzat» hartutako bi irrintzi ditu; halaber, bertso ezezagun bat dago, Herriyetan batzubek izenburuarekin. «Parisen kantu gehienak amodiozkoak ziren, baina satiriko gutxi horietako asko euskarazkoak ziren. Horrek frogatu du faltsua dela euskaldunok gure buruaren kontura barre egiten ez dakigula dioen topiko hori», esan du Jose Mari Velez de Mendizabalek, Eusko Ikaskuntzako gerenteak.

1900. URTEA

1900. urtekoak. Inaxio Lopez de Aranak Leon Azoulayk 1900. urteko Pariseko Erakusketa Unibertsalean agertu zituen lanak azaleratu arte, ustea zen euskarazko lekukotasun soinudun zaharrenak 1913koak zirela, Karl Rudolf Trebitsch etnologo austriarrak Euskal Herrian musikaren nahiz hizkuntzaren gaineko zenbait grabaketa egin zituenean. Trebitschen lanok Euskaltzaindiak Bilbon duen Azkue Liburutegian daude gaur egun.

bar Jaime
KAXUELITAK • MENUAK • PINTXOAK
BAZKARIAK ETA AFARIAK
Alejandro San Martín Dk., 2 behea • Tel.: 948 25 10 21 • IRUÑEA